

ORTOGRAFIA

● **Bokalak**

- ◆ Hitz hasieran /i/ beti <y>
 - *ysan, ydoro, ysi, yla, yru, ybaya, ycaza, yduria, ycuscatu, yluna...*
 - Salbuespenak: *irapaçi, hico*
- ◆ Diptongoetako *yod*-a beti <y>
 - *aydea, ayta, ayña, beyn, ereyn, ereyñosa, gayxoa, lucaynquea, mandasayña, nay, oyña, seyn, seyña*
 - Batzuetan ematen dut <y> honen arrazoia hurrengo kontsonantearen sabaikaritzea adieraztea edo azpimarratzea dela (*ayña, oyña*). Besteetan ez dakigu kontsonantea sabakaritzen zen ala ez.

● **Txistukariak**

- ◆ /s/ eta /s/-ren arteko bereizketa galdua: <s>, <ss>, <z>, <c> eta <ç> grafemen nahasketa
 - *astu, aussoa / auso, azala / asala, balsa, bizarra / bissarra, basterra, ysan, bisia, egusquia, eroçi, eronsi, essarri, guerisea, gusurra, assi / açia / asia, assurra, ossasuna, ussoa / usacumea, syla / zyla*
 - <n> baten ondoren gehienetan <ç>, baina batzuetan <s>: *aunça / basaunsa, burrunçia, dançea, punçuniñoa, uncea, araunçea / arrausa, esconsea, onsa*
 - hitz hasieran beti s-: *sura, sorsi, suria, sesena, suloa, seren* (*çeatu, zaguia* izan ezik)
- ◆ <x>, <g> eta <j> grafemen nahasketa
 - Ez da erraza jakitea zein hotsi legozkiokeen grafema hauek, hitzez hitz emaitza desberdinak ditugu, batzuetan /j/ eta besteetan /j/
 - *oxala* (RyS *ojala*), *egildu* (RyS *exilic*), *xarroa* (Gaminde *yarroa*), *xo* (Gaminde *yo*), *xaquin* (Gaminde *yaquiñ*).
 - hitz hasieran: *xaya, xauna, xausi, xamoea...*
 - *agea / axechu / axea*
 - *frigidu*
 - *elejea / elexara, xupoea / jupoea, xosi / jostorraza, chijea / chishea*
- ◆ Txistukari afrikatuei legozkiekeen <s>, <ss>, <z>, <ts>, <ç>, <sz> eta <z> grafemak
 - Batzuetan <s> soila: *yracasi, ames-eguin, arrausa, basuc, bisuc, esea*
 - Besteetan <ss>: *amessa, asso, asseregoa, francessea*
 - Gutxi batzuetan <ts>: *ytsuric, ytsasoa, atsoa, etsea*
 - Batzuetan <z> afrikatua: *garraza, gaza, oz / ossa, maza, mazorria, mayaza,*

martizena, puzeguin, puza, vioza, viza, orraza, ardaza

- Bestelakoak <ç>, <sz>, <zs>: *amaraça, emereçi, yçutu / ytsuric, osza, ozsoa*

◆ <ch> digrafoa ondo erabilia: /tʃ/

- *arecha, achurra, bacochoa, barrachicoa, epecha, echi, echun, gacha, guichi, mochu, choria, chacurra, chistua, chua, chijea*

● **Ozenak**

◆ <r> eta <rr> **banaketa librean (irizpiderik ez)**

- *amaradu, berrori (ABS+DAT), berori (ABS+DAT), angerrua, arauñça, aterra, varuan, belaria, oraza, erasti, essari, guerro, amarr / amaraça, liburrua, madarria*

◆ <l> eta <ll> **banaketa librean: batzuk sabakariak, besteak nekez**

- *bacallaoa, pulluac (Gaminde pulua), tollarea (RyS dolara)*
- *kinpullea (Gaminde kunpillie), ullea / ulea (Gaminde ullie)*
- *milla, nescatilla, espillua, belleguia*
- *olloa, ollarra, tellea*

◆ <n> eta <nn> **banaketa librean + <ñ> grafema (bustidurarik?)**

- <nn> sudurkari ez-sabaikaria: *bustanna, asunna*
- <ñ> yod sudurkaritutik: *myña, seyña, burdiña, oracioño, osseyñ, punçuniño, ynes?*
- <ñ> sudurkari sabaikaritua: *oyña, yñarra, baguiñea, vaziña, veyñac, ereyñosa, erreguiña, cañibeta, cochiña, layñoa, lencusiña, mandasayña, soyñeco, aranguiño*
- <n> sabaikaritua?: *ynurria, sinistu, es-ynior, guino*

● **Bestelako kontsonanteak**

◆ Ezpainkariak: <u>, <v> eta ez dira bereizten

- *auasusea, alauea, fauorea, garuiric, arrisauala, ouia*
- *vizarra / bizarra; bisia / visisea; vorondatea / borondatea; betetu / vetetu; veyn / beyn*

◆ Oso <h> gutxi

- Ortografikoak: *humeac, hurtea*
- Etimologikoak: *hamua, herlojua, hico*

FONETIKA ETA FONOLOGIA

● **Bokalak**

◆ Bokal sudurkariak

- <n> ez da beti idazten:
 - *lau / launti* [lãũti], *arrantza / arrauntzea* [arrãũtzea]
 - Adizki bukaerako -n: *nindia* [nindiã], *sã / san*
- <ñ> grafemak bokalaren sudurkaritasuna adieraziz:
 - *orazioñoe* [oraziõẽ], *punzuniñoa* [puntzunĩõa], *miña* [mĩã], *diño* [dĩõ], *burdiña* [burdĩã], *seiña* [sẽĩa]
- -VnV- > -VhV- zaharrak:
 - *ardaoa* [ardãõa], *baea* [bãẽa], *lukainka* [lukãĩka], *samau* [samãũ]
- Hitz bukaerako -ae < *-ane, -oe < *-one, -io < *-ino, -au < *-anu:
 - *kanpaea* [kanpãẽa], *gastaea* [gastãẽa], *eskoea* [eskõẽa], *errazoea* [errazõẽa], *jupoe* [jupõẽ], *jamoe* [jamõẽ], *tximioa* [tximĩõa], *errefaua* [errefãũa]
- Bestelakoak: *baia* [baĩã], *ines* [ĩẽs]

◆ Hitz bukaerako -a-ren disimilazioa

- ABS sg. -a: *alkandorea, kaobea, denporea, espatea...*
- ABS pl. -ak: *zapatak, pantofleak*
- DAT sg. -ari: *deungeari, kriadeari*
- -e > -a: *auma, andra, deunga, baga, lora*

◆ Hitz hasierako u-

- Dardarkariak eragindako i > u: *ulea, uruna, untzea (<*ultzea), uria*
- Txistukariak eragindako i > u: *usena*
- Bestelakoak: *urten, uger* (baina *insaur*)

◆ Hitz bukaerako -u

- Erromantzezko maileguak: *almorzu, kontu, ebanu, probetxu, sonbreru, ziertu...*

◆ Bokalen irekitzea

- Dardarkariak eragindako e > a
 - *barri, txarria, uzkarra, sarratu*
 - baina *berri(z), txiker*

◆ Bokalen ixtea

- Sudurkariak eragindakoa

- *eronsi* < **eransi*
- *etxun*
- Asimilaziozkoak
 - Erregresiboa: *bildur*, *gitxi*, *agirtu*, *gusurra*
 - Progresiboa: *iper-* > *ipir-*, *sinistu* < **sinestu*
- Bestelakoak
 - *ustia* < *ustea*
- ◆ Diptongoen soiltzea
 - -ain- > -an-: *ganean*, *sana*; baina *laiñoa*, *mandasaiña*, *salsain*
 - *arpegia* < *aurpegia*
 - *gedar* < **geadar* < **deadar* < **deiadar*
- ◆ Aferesia
 - *gasabea* < *ugasabea*

● Kontsonanteak

- ◆ Hitz hasierako herskari ahoskabeak
 - k- (beste euskalkietan g-) (RyS *kibel/gibel*)
 - *kerexea*, *kalzerdiak* (RyS *galzer*), *kañibeta*, *kinpullea*, *kolkoa*, *korotza*, *(len)kusua*
 - t- (beste euskalkietan d-) (RyS *tilista/dilista*)
 - *titarea* (Gaminde *titerie*), *titia*, *tollarea* (RyS *dolara*)
 - p- (beste euskalkietan b-) (RyS *pelz/balz*)
 - *pagoa*, *pekatu*, *puxiga* (IpEH *bixika* < *vessica*), *parkatu*
 - p-ren galera u-ren aurretik: *uzker* < *puzker* (“putz oker”)
- ◆ Hitz hasierako herskari ahostunak
 - d- eta g-ren nahasketa: *dustia* / *gustia*, *gedar* < **geadar* < **deadar* < **deiadar*, *gei*
- ◆ Bokalki arteko herskariak
 - Ahostunak (beste euskalkietan ahoskabe)
 - *ebagi*, *irigi*, *eugi*, *jaigi*, *urtigi*, *puxiga*, *sugatea* (baina *sutaldea*)
 - Ahostunen erorketa
 - *eugi* < **edugi*
 - *ezaun* < **ezagun*
 - *itxon* < *itxadon*

- *jeltsoa* < **igeltsua*
- Ahoskabeak (beste euskalkietan ahosgabe)
 - *irapazi*
 - *jupoea* < **jubboea*
- ◆ Txistukarien sabaikaritzea
 - -itz- > -tx-
 - *bakotxa, atxa, aretxa, gatxa, etxi* < **eitzi*
 - -iz- / -is- > -x-, -s-
 - *askorea* (Gaminde *askorie*), *exetu* < **izetu*, *exildu* < *isildu*, *gerisa, axea, nax / nas* (RyS *nayz*), *elexa, gox, nox, kerexea*
 - baina *gaixoa, gaistoa*
- ◆ Bestelako sabaikaritzeak
 - il > ll: *lloba* < *iloba, milla, nescatilla, espillua, belleguia*
 - Adierazkorra: *txua, txoria, txakurra, tximioa, motxua*
- ◆ Hitz hasierako f- (RyS-en ez daude)
 - *firua* < **filu* (Gaminde *firue*)
 - *frakak* < *prakak*
 - Mailegu berriak: *fuerzea, forzadu, frijidu, faborea, fruteru*
 - Baina: *ikoa, urka*
- ◆ Bokal arteko dardarkariak
 - Bokal arteko -r- zaharra: *berarra, erurra*
 - -l- > -r- : *irargia, orioa, firua*
 - -r- > -l- : *elestuna*

IZEN MORFOLOGIA

● Absolutiboa

➤ Artikulu definitua singularrean:

- -a + -a > -ea: *alcandorea, caobea, demporea, espatea...*
- -e + -a > -ea: *adisquidea, atea, borondatea, elefantea...*
 - -a/a eta -e/a ez dira bereizten. Ondorioz -e > -a: *auma, lorak* (erg, sg.)
- -i + -a > -ia / -o + -a > -oa / -u + -a > -ua
 - -oa, -ua ondo bereizita, baina erromatzezko maileguak beti -u-rekin: *almorzu, contu, ebanu, provechu, sombreru, ciertu...*

➤ Pluralean

- -a + -ak > -ak (ez -aak arkaismoa): *zapatac, baina pantofleac.*

➤ Artikulu hurbila:

- SG -au (-a + -au > -au, EZ **-eau): *escritoriau, guelau, urau, bisarrau*
- PL -ok: *pinturoc, erretratuoc, plateroc, trastuoc*

● Ergatiboa

➤ singularra eta plurala ez dira bereizten: -ak (mgg. -k)

● Datiboa

➤ SG -ari (-a + -ari > -eari): *deungueari, criadeari*

➤ PL -ai: *sereguinay*

● Genitiboa

➤ singularra eta plurala ez dira bereizten: -en

- pl. *xauneanac* ??

➤ -a+-en > -en: *aumen, gasaben* (sg); *gausena, calsetenac* (pl)

● Destinatiboa

➤ Genitiboaren gainean eratuta, hortaz sg/pl ez bereizita

➤ Bi forma lehia: -ensat / -ensaco (pl??)

➤ Mugagabeen -a + -en > -aen: *gorraensaco*

● Prolatiboa

➤ Beti mugagabeen: -sat

● Ablatiboa/Partitiboa/Prosekutiboa

➤ Ablatiboa eta prosekutiboa bereizita baina batzeko bidean: *nondic = noric*

- Ablatiboa: -(r)ean, -reonic (hurbila, pleonastikoa), -(r)ic (zaharra), -aganic (zaharra)
- Partitiboa: -(r)ic / -etatic (ablatibo zaharra) (+ zenbakiak)
- Prosekutiboa: -(e)ti(c), pl. -etati
- **Inesiboa**
 - Arkaismo eza (-a + -an: -aan, VJ -ean): *faltriqueran, caxan*
 - Bizidunak eta bizigabeak ez ondo bereizita: *xaunetan*
- **Instrumentala**
 - Denborazko balioa: *baricus* (mgg)
- **Soziatiboa**
 - SG -agaz
 - PL -(a)kaz (*puñucas*)
 - Koordinaziozko balioa:
 - Peru xauna derechan vategaz, vere osseyñ Alonso-en artean
 - dustia orraziagas
 - -gasco / -raco / -ensaco antzera erabiliak testuinguru berberetan
- **Motibatiboa**
 - SG -aga(i)ti (zaharra)
 - PL -akaiti
 - MGG -gaitik

Erakusleak

	SG			PL		
	1. gradukoa	2. gradukoa	3. gradukoa	1. gradukoa	2. gradukoa	3. gradukoa
ABS	<i>au</i>	<i>ori</i>	<i>a</i>	<i>onek / oneik¹</i>	<i>ok²</i>	<i>ae</i>
ERG	<i>onek</i>	<i>orrek berorrek</i>	<i>ak</i>	-	-	<i>ae eurak</i>
DAT	<i>oni</i>	<i>berorri</i>	<i>ari</i>	-	-	-
GEN	-	<i>orren</i>	<i>aen³</i>	<i>onena</i>	-	<i>euren euren</i>
PROS	<i>onetati</i>	-	-	-	-	-
INES	<i>onetan</i>	-	-	-	-	-
ABL	<i>onerean</i>					

1 Hego-mendebaldeko hizkeretan *oneik* (Debagoiena: Zuazo)

2 pastel-hoc, tapiz hoc

3 VS aen, RyS aen, aren, arren, ain

SOZ	<i>onegas</i>	<i>orregas</i>	<i>beragas</i>	-	-	<i>eurakas</i>
------------	---------------	----------------	----------------	---	---	----------------

Artikulu definitu hurbilak

SG		PL
1. gradukoa	2. gradukoa	
<i>bissarrau</i> <i>urau</i> <i>balsau</i> <i>guelau</i>	<i>mesedeori</i>	<i>elestunoc</i> <i>mesedeoc</i> <i>pinturoc</i> <i>erretratuoc</i> <i>bassuoc</i> <i>besteoc</i> <i>plateroc</i> <i>trastuoc</i>

Pertsona izenordainak

	1. sg	2. sg	1. pl	2. pl
ABS	<i>ni</i>	<i>su</i>	<i>gu</i> <i>guek</i> <i>guk</i>	<i>suek</i>
ERG	<i>nik</i> <i>neuk</i>	<i>suk</i> <i>seuk</i>	<i>guk</i>	<i>suek</i>
GEN	<i>ene</i> <i>neure</i>	<i>sure</i> <i>seure</i>	<i>gure</i>	<i>suen(a)</i>
SOZ	<i>nigas</i> <i>neugas</i>	<i>sugas</i>	-	-
ALA	-	<i>seugana</i>	-	-
DEST	<i>enetzat</i>	-	-	-

ADITZ MORFOLOGIA

ADIZKI JOKATUGABEAK

Forma burutua

- Mailegu berriak -adu: *almorzadu, dobladu, encomendadu, erregadu, mudadu, pagadu, trucadu*
- Mailegu berriak -idu: *fingidu, componidu*
- Mailegu zaharrak -atu: *bedeyncatu*
- Mailegu zaharrak -itu: *aditu*

Partizipioa

- Arkaismoa: beti -(r)ik atzizkiaz baliatuta, inoiz ez *aditza + eta, -ta/-da*.

Aditz izena + forma burutugabea

- -adu > -eta(n): *almorzetan, brindetan, despachetan, negocietan, holguetaco, piquetan*
- -idu > -ieta(n): *cumpletaco, obedietan, servietan*
- -tu/-du > -tute(n)/-dute(n): *adituten, astuten, biortuten, gogaytuten, elduteco, aguinduten*
- -n > -te(n): *eguiten, egotea, esateco, yrauten, xoaten, xateco*
- -Si > -Ste(n): *ecusteco, yrgasteco, xasten*
- Arkaismoak:
 - -gi > -gite(n): *xayguita, ebaguiten*
 - -n / -V > -ite(n): *emoyten⁴, ydarayten⁵, ysayteco⁶, yminiten?*
- Bereziak:
 - Silaba bakarreko erroak > -tzaiten: *galsayten, sarsayten*
 - *betetu > betetan*

Aditzoina

- EDIN eta EZAN-ekin bakarrik baina horiekin beti
 - *adisate, vior equida, bustedite, eguin sidi, garviessasus, gueldisate, gordebite, ysandin, xarridites, xarribidi, contaninçean, sufriessasu*
 - hala ere *xarri*, EZ ****xar**

Geroaldia

- Beti forma burutua + -ko (Mendebalde zabala)

Mendebalde zaharreko ezaugarriak

- Aldaerak:
 - Aditz hasierako e-: *ecussi, ebili, exetu* (izeki), *exildu, echi* (itxi), (esan/isan)⁷
 - -gi bukaerako aditzak (-ki orokorrean): *xaygui, ebagui, eugui, irigui*⁸
 - Bestelakoak: *guey emon* (dei egin, deitu), *emon, ymini, urten, ysi, aitatu, biortu, loo eguin, echun*⁹

4 RyS: *emaitê, emaytea, emayten, emaytê*

5 RyS: *edaraytê, yderaytê*

6 RyS: *yzaytea, yzayten*

7 RyS: *ecusi, ebili, exequi, exilic, echi*

8 RyS: *jaigui, ebagui, euguiarren, Ø*

9 RyS: *Ø, emon/emongo, yfinc/ybini, hurten, yssi, ayta, biortu, lo, echun*

- Lexiko berezia: *ydoro, urgazi, on erechi, eroan*¹⁰
- Semantika berezia:
 - *esarri* (bota, isuri)¹¹: *esarsu surirean*
 - *aditu* IRGK (ulertu): *adituten dot, emasteagayti diño berorrec*
 - *aditu* IRGG (begiratu; bilatu)¹²: *es nax ni adituten orrelaco gausetara; guisona aditu joeala*
 - *eldu* + *zeri* (zertaz arduratu): *gueyago eyten dot elduteco neure sereguinay*
 - *erechi* (deitu, izena izan): *Peru xauna derechan vategaz*
 - *erabili* (ekarri)¹³: *besten vioza neugas darabilt*

ADIZKI JOKATUAK: JOERA OROKORRAK

- Aditz laguntzaileak (8)
 - IRGG: izan, *edin, joan
 - IRGK: *edun, *edutsi, egin, *ezan, eroan
- Aditz trinkoak (24 guztira):
 - *edun, egin, izan, eroan, joan, egon, eretxi, erabili, eduki, ibili, *-iño-, ekarri, ikusi, etorri, jakin, irudi (16)
 - Aginteran soilik: entzun, jaigi, irigi, *-i(n)-, esan, ezarri, imini, itxon/itxadon (8)
- *Ez*¹⁴ + adizkia ia beti elkartuta + aldaketa fonetikoak islatuta: *estot, esta, enas*
- Aditz nagusia + laguntzailea askotan elkartuta ere (*jodaude, contaninçean, xayguitenda...*), batez ere lokuzio estatiboetan (*naydau, guradot*)
- Sinkopak:
 - *naystot*
 - *ustiot, ustiosu*
 - *yminicosu, ydorocogu*
 - *bacarr, bira*
- Adizki bukaerako -n (lehenaldiko marka / erlatibozko marka / zehar galderetako marka / harridurazko perpausetako marka) oro har ez da idazkeran islatzen; batzuetan bai, besteetan ^ moduko marra gainean edo azentua ´.
 - Ahoskatzen zen?

10 RyS: *ydoro, urgaçi, on erexteco, eroa*

11 RyS: *nesquea ezarc alborean* (313)

12 RyS: *aurrera adizen eztana* (423, 456); Gaminde (1986): *aitu* (Begoña), *aittu* (Buia)

13 RyS: *andra guztioç erçeti erabilico aude veti* (316)

14 Gutxi batzuetan ze-: *sebegui, sedeguidisula*

- Azken bokala sudurkaritua?
- Iruñerri inguruko ibarretan, eta oro har Nafarroa Garaiko erdigunean¹⁵
- Bizkaiko sartaldean (Uribe kosta)
- Perpaus osagarrietako atzizkia:
 - -(e)la: *dauela, daudela, sedeguidisula, esneydysula, datorrela*
 - -ala: *daguiala, daguisala, naxala, dala, direala, eroeala, joeala, sagosala, dagoala, derechala, daucagusala, daquidala*
- 1. pertsona singularreko -t > -da + atzizkia: *doda(n), dodala, daquidala, diñoda*
- 2. pertsonan:
 - sg / pl bereizketarik ez gehien-gehienetan: *dosu, sara, sagos, senguian*
 - EGIN: *eguisu / eguisue ; basengui / vasenguie*
 - IZAN: *sintequea / sinatequea ??*
- 3. pertsona lehenaldian Ø- :
 - *eve / evea* (zuen), *eudea* (zuten), *eguia, eguisanena, eguien, eroena* (zeramana), *equida* (zekidan), *joeala* (zihoala)
 - z-: *san, sirean, sidi* (zedin)
- NOR pluralgilea
 - -z orokorrean: *dogusanac, badeusas, daguisala, eguisanena, days, ninçean, essasus, dites, goasean, estoas, sagos, gagos, dagos, dagocasan, begos, daucagusala, betos, yminsus...*
 - baina -it- ere: *ditu, estitu*
 - Lehian (+pleonasmok): *dau(s)ela, dit^usanac, badit^us, basagoças, estabilsas*
- NOR pluralgilea:
 - -e: *eguien, leye, vasenguie, valeguie, eguisue, beguie, daroe, dereche, dauque, diño*
 - -de: *daude, estaude, daudela, eudea* (*edun)
- Agintera eta Subjuntiboko formak (nahasian) (-i / -n bukaerako aditzak soilik)
 - 3. pertsona: *b-* + aditzoina (ken -i/-n) * irregularrak
 - *begui, beguie, bis, vira*, bidi, bite*, bego, begos, beuque, betor, betos*
 - 2. pertsona: aditzoina (ken -i/-n) + (NORI perts. marka) + pertsona marka (-k, -zu, -zue)
 - *eguisu, eguidasu, eguiosu, eguisue, essasu, essasus, eroadasu, ecarguc, ecarsu,*

¹⁵ Camino (2003:67. orr): Iraganeko adizkietan -n morfemarik ez izatea, Gesalätzen, Goñerrian, Oltza zendeian, Ollolibarren, Itzarbebarren, Eguesibarren, Elortzibarren, hego Esteribarren, Erroibarren, Artzibarren eta Aezkoan gertatzen den ezaugarria da. [Bizkaiko idazki zaharretan ere, -n gabeko adizkiak ditugu iraganean, esaterako RS-n edo Mikoletarengan. Egun Barrikan eta Urdulizen ere, -n gabeak dira adizkiok zaharren ahotan]

ecasu, ecargussu, ecussu, esac, esadosu, esarsu, yminsu, yminsus, ychosu, yguc, yndasu, (guey)enasu

- *saycora* (jaik orra) < *jaig- + -g(a)
- *yricasu* < *irig- + -ga + -zu
- *bansuc* < bada entzuk
- Irangangaitz trinkoak: *sara, oa, soas; sagos; sate* (zaitez)
- 1. pertsona batez ere (subjuntiboa): orainaldiko forma trinkoa + -an / -(a/e)la
 - *dayda, daygua* (geroaldiko agintera); *naxâ, gareâ, goasean, nagoâ, gagoseâ, daucagusala*
 - *sareâ*
 - *dala, datorrela*

*EDUN

- Trinkoa (oso gutxitan): eduki-ren mesederako (berrikuntza)

*EDUN	EDUKI
<i>falta bat dau bakarric¹⁶ seynbatan eve berorrec escritoriau?</i>	<i>nigas daucasun porfia seuc (edo) daucas beguietan odehyac serren daucat gaur asco sereguin badauque calzerdiac puncturic ascaturic seymbat ulle urdin daucada daucagusala oean se galantic dauco guelau enesat daucan obena sapore ona dauque dauquanean gisonac criadu asco non daucasu emen daucat</i>
Lokuzio estatiboak: uste izan nahi izan behar izan gura izan atsegin izan damu izan balio izan monta izan	

- Laguntzailea iragankorra indikatiboko aldietan
- Hainbat lokuzio estatiborekin
- 3. p. pl. *daude, eudea* (arkaismoa)
- NOR pluralgileko formak lehian: *daus / ditu / ditus*
- 2. pertsonako formetan + NOR pluralgilea: erabateko disimilazioa
 - *noric ecarri dous¹⁷ pastel-hoc?*
 - *daucas(u)¹⁸ beguietan odehyac*

¹⁶ Lokuzio estatiboa ere izan daiteke: falta izan

¹⁷ *dozuz

¹⁸ *daukazuz

- *xansi eguidaus*¹⁹
- Lehenaldiko trinkoak balore perfektiboa (ekintza burutua) dauka (aoristo trinkoa):
 - *seynbatan eve berorrec escritoriau?*
- Orainaldiko -o-/-au- erroko formak: *dot, dosu, dau, dogu, daude*
 - *duna* forma atxikia: *raçu pespuntadu duna*
 - *dolaco* adibide bakarra²⁰
- Lehenaldiko eta baldintzazko -e(d)u- /-endu- formak: *nendua, sendua, evea, gendua, eudea*
- Baldintzazko formak:
 - -ke-dunak: *leuque, senduqueo* (sic)
 - -ke-gabeak: *nenduâ, sendua, evea, eudea*
- Nor-Nork saileko adizkia: *servietanau*

*EDUTSI

- Nor-Nori-Nork saileko laguntzaile iragankorra
- -eu- erroko adizkiak (ez -o-, -au-):
 - *deusat, esteusut, deustasu, badeusas*

EGIN

- Ez-indikatiboko laguntzaile iragankorra (*ezan desagertzekotan)
- Egin-en lokuzioak:
 - euria egin: *euria badagui*
 - gatx egin: *esteysu gachic*
- Subjuntiboko balioak:
 - *daguida ondo ymini bissarrau*: bizar hau ondo ipini dezadan
 - *garbitu ta componidu daguiala guelau*: garbitu eta konpondu dezala gela hau
 - *neuc baño aguindu dayana*: nik baino gehiago agindu dezana
 - *pagadu daguisala*: ordaindu ditzala
 - *dobladu daygua*: tolestu dezagun
- Aoristo perifrastikoa:
 - *astu senguia*: ahaztu zenuen
 - *emon senguidan gloria*: eman zenidan gloria

19 *egidazuz

20 RyS: doala

- *esan senguida*: esan zenidan
- *ycusleac eroan eguisanena*: ikuzleak eraman zituenena
- Ahalera (-ke gabea):
 - *xandays*: jan dagi(ke)z
 - Hipotetikoa:
 - *esseyñ gueyemon*: ez ze(g)in(ke) gei emon
 - *galdugueyñ xateco gurea*: galdu ge(g)in(ke) jateko gura
 - *esanley*: esan le(g)i(ke)
 - *esan leye*: esan le(g)i(ke)e
- Baldintzetan:
 - Errealak:
 - *euria badagui*
 - Hipotetikoa:
 - *banengui, basengui, balegui, baguengui, vasenguie, valeguie*
- Geroaldiko forma (-di-duna eta -di-gabea):
 - *atera dayda contua*: aterako dut kontua
 - *edandaysu ostera*: edango duzu berriro
 - *esteysu gachic*: ez dizu gaitzik egingo
 - *ydoradays guisonac guisadoric*: aurkituko ditu gizonak gisaturik
 - *ori eguinday*: hori egingo du
 - *garbitu daygua guelau*: garbituko dugu gela hau
 - *sedeguidisula ecarri orrelaco comparaçiñoric*: ez duzula ecarriko horrelako konparaziorik
 - *esneydysula trucadu*: ez nauzula trukatuko
- Nor-Nori-Nork saileko adizkia: *esteysu* < ez de-gi-zu-Ø
- Nor-Nork saileko adizkia: *neydysula* < ne-gi-di-zu-la
- -gi- eta -i- erroko formak (jokatugabeak eta jokatuak) lehian
 - *eguiten / eyten / eten / eteco*
 - *daguiala / dayana, ley / balegui, leye / valeguie, sedeguisula / esneydysula*

*EZAN

- 3 alditan bakarrik (arkaismoa)
- Aoristo perifrastikoa:

- *nic vostac contaniņean*: nik bostak kontatu nituen
- Agintera:
 - *sufriessasu*: sofritu ezazu
 - *garviessasus ene erropa dustiac*: garbitu itzazu nire arropa guztiak

IZAN

- Indikatiboko laguntzaile iragangaitza eta trinkoa
- Idazkeran *nas / nax*
- *dan / den < *dean < da + -an* = Morfosintaxian azalpena
- *-a + -an > -ean*: *direan, sinean, guinean, sirean*
- Baldintza hipotetikoa *-te-duna*:
 - *sinate, lisate*
 - Pleonastikoa + *-ke*: *nysatequea, sintequa, satequea, guinsatequea, sinatequea, sitequean* (berrikuntza)
- Nor-Nori saila:
 - *etorrico xasu gacha bertati*: etorriko zaizu gaitza gero
 - *gausaric obena falta xaco berorri*: gauzarik onena falta zaio berorri

*EDIN

- Aoristo perifrastikoa:
 - *mudadu nindia*: mudatu nintzen
 - *non eguin sidi?*: non eguin zen?
 - Nor-Nori saila:
 - *penatan vior equida*: pena bihurtu zitzaidan
- Ez-indikatiboko laguntzaile iragangaitza:
 - Subjuntiboa:
 - *non ydorocogu ona ysandinbat?*: non aurkituko dugu ona izan dadin bat?
 - Ahalera *-te-duna*:
 - *bustedite*: busti daiteke
 - *guey emondite*: deitu daiteke
 - *xarridites*: jarri daitezke
 - Agintera:
 - *adisate*: adi(tu) zaituz = begira ezazu

- *gueldisate*: geldi(tu) zaitez
- *xarribidi*: jarri bedi
- *gordebite*: gorde bitez

EROAN

- Laguntzaile iragankorra (ohikotasuna) eta trinkoa
 - *esan daroe*: esan ohi dute

JOAN

- Laguntzaile iragangaitza (ohikotasuna) eta trinkoa
 - *aditu joeala guisona*: bilatu ohi zuen gizonak
- Nor-Nori saila *-i-*duna:
 - *joasu* < **d-i-oa-zu*

EGON

- *-z* pluralgilea:
 - *sagos, gagos, dagos*
 - Pleonastikoa: *basagoças*
- Nor-Nori saileko adizkiak *-i-* gabe:
 - *nagoc(o), dagocasan* (ez ***niagoco*²¹, ***jagocasan*)

EDUKI

- *-auka-* erroko adizkiak (ez *-eko-*): *daucat, daucasu, dauco, daucagusala, dauque*
- *-o / -aC* alternantzia: *dauco / daucan*

*-IÑO-

- Tarteko *-ñ-* Bizkaiko ezaugarria:
 - *diñot, diñosu, diño, diño*

*-I(N)-

- Aginteran bakarrik:
 - *yguc edaten*
 - *yndasu velartesco xaquea*

21 Hau ez da bizkaiera modernoa (hitanoan apika)

- *yndasuç ferreruelua eta sombreroa*
- *guey enasu* < gei inazu (disimilazioa -y + -i > -ye)

INDIKATIBOKO ALDIAK

Trinkoetan

Aoristo trinkoa: *eve, (on) nerechu(n), etorsan*

Orainaldiko imperfektiboa: *dacarr, dacust, nago, daucat...*

Lehenaldiko imperfektiboa: Ø

Ikasbidearen lehenengo atalean, gramatikan, autoreak berak hainbat aldi aurkezten dizkigu, euren gaztelaniazko baliokideekin batera.

Forma burutua + EDUN (lehenaldian) ez du aipatzen.

Forma burutua + IZAN (lehenaldian) bai, aoristoaren ordezt (*edin).

Aditz perifrastikoetan

Denbora ↓	Aspektua →	Burutugabea	Burutua
“Orainaldia”		<i>eguiten dot</i>	<i>eguin dot</i>
“Lehenaldia”		<i>eguiten nenduan</i>	<i>eguin nenguian</i>
“Geroaldia”		<i>eguingo dot</i>	<i>eguin al dot</i>

Olerkietan

Lehenaldiko perfektiboa	<i>mudadu nindia vior equida emon senguidan esan senguida astu senguia</i>
--------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------

Elkarrizketetan

Lehenaldiko perfektua	<i>vostac jodaude estitu ecarri nic ya beyn edandot nondic ysanditu nic emon dot orayn onetan noric ecarri dous pastel-hoc? au ondo eguin da berac galdu baditus</i>
Lehenaldiko perfektiboa	<i>Flandesic etorri sirea</i>

Lehenaldiko pluskuanperfektua?
Lehenaldiko aspaldiko perfektiboa?

*vostac contaningean
non eguin sidi
ycusleac eroan eguisanena*

MORFOSINTAXIA

HIZKERA MAILAK

- Hika, zuka eta berorika nahastuta + hitanoaren adibide bakarra
 - *saycora, yricasu araco ventanea, ta eguna den ecussu*
 - *xamoe onegas edangodau berorrec ostera, ecarsu azeytuna basuc*
 - Jaunek morroiari: zuka + hika
 - Morroiak jaunei: berorika
 - Jaun batek besteari: berorika + zuka
 - Morroiak atsoari: zuka
 - Atsoak morroiari: zuka + hika

- HIKA
 - *oavada esque*
 - *mutil ecarguc almorzua*
 - *yguc edaten*
 - *esac, ser monta daude*

- ZUKA
 - *edo suc diñosu gusurra*
 - *seuc seure provechua ustiosu*
 - *ustiot sagosala loo*
 - *soas, carran yricassu*
 - *ecargussu pastel basuc*
 - *nolan joasu euracas?*
 - *edandaysu ostera se esteysu gachic*
 - *sure visisea esadosu seyn da*
 - *ta urtengodosu orregas*
 - *guichiago adituco sinate*
 - *esarsu surirean*
 - *xaquin eguisu*
 - *essari eguidasu*
 - *aesganean sagos çiertuan*

- BERORIKA
 - *seyn soyñeco asseguin dau ymini seure mesede orec?*
 - *errasti bustedite berori*
 - *dala berori aen ondo etorri seyn urte onac*
 - *se galantic dauco guelau berorrec*
 - *gausaric obena falta xaco berorri*
 - *emasteagayti diño berorrec*

- *xamoe onegas edangodau berorrec ostera*
- HITANOA
 - *Mutil, yguc edaten se piperac piquetan **xoc**²² (= dau + hi alokutiboa mask. = dik)*

KOMUNZTADURA FALTA

- Osagarri zuzen pluralerako komunztadura
 - EZ
 - *ecarsu azeytuna basuc*
 - *yminsu cobrutan trastuoc*
 - *gozo **derechalaco** ardaoac*
 - *ebaguiten **dau(s)ela** surrac* (honetan idazleak zuzendu zuen)
 - BAI
 - *garviessasus ene erropa dustiac ta yminsus ordean*
 - *ta berac galdu **baditus**, pagadu **daguisala***
- Zehar osagarriarekiko komunztadura
 - *ycusleari escatuco **nax***

SINTAGMA MAILA

- Koordinazioa
 - X-gaz Y-ren _____ = X eta Y-ren _____
 - *Peru xauna derechan vategaz, vere osseyñ Alonso-en artean*
 - X Y-gaz = X eta Y
 - *non dago dustia orraziagas*
- Zenbatzaileak
 - Zenb + (r)ik
 - *ori da bat yru gausetaric*
 - *tocadorearic lau*
 - *asco dago onac direanic*
 - asko: aurretik eta ondoren
 - *daucat gaurr asco sereguin (sg)*
 - *dauquanean guisonac criadu asco (sg)*
- Izena + Perpaus erlatiboa + Artikulua (NErl)
 - *onaco trapu yquzleac ecarri ditusanac*
 - *memoria ene gasaben trapu ycusleac eroan eguisanena*
- Postposizio askeak
 - *baga (+GEN/ABS)*
 - *aymbaga egotea: hura [haren] gabe egotea*
 - *eser falta baga*
 - *oguibaga*
 - *dirubaga*

- *yzal baga*
- *ganean* (+INST//ABS/GEN)
 - *aesganean sagos çiertuan*: haien [haisetaz] ganean, haiei buruz
 - *may ganean*
 - *oyñen ganean*
- *guiño*²³ (+ABS) [muga alatiboa]
 - *asserengo guino*: azkeneraino
 - *aranguiño / arayguino / aranguino*: oraindaino

PERPAUS MAILA

- Konparazio perpausak
 - Erlatiboak
 - Berdintasuna
 - *leguez*
 - DS + *leguez*
 - *campoan lorac leguez*
 - *urtan viza leguez*
 - *malillea leguez*
 - + -(e)na + *leguez*
 - *esan daroena leguez*
 - *dana leguez errazoea*
 - + -(a)la + *leguez*
 - *esan eroeala legues*
 - *seyn* + mendeko perpausa (aditzaren elipsia egon daiteke)
 - *seyn diamantesco arria*
 - *ondo etorri seyn urte onac*
 - *seyn judegua baricus*
 - *seyn ni naxá*
 - DS + *nola* (= bezala)
 - *nic nola berri(z) sufriessasu*
 - *adarra nola*
 - *escutari pobre batensat nola*
 - *erreguec bere alcavalacas nola*
 - Desberdintasuna
 - -ago ... (*baño*)
 - ***obeago da sure espatea baño***
 - ***lenago dacarsu jupoea, alcandorea baño***
 - ***osasunsuago da gorria baño***
 - ***neuc baño*** (gehiago) *aguindu dayana*
 - ***beroago*** *goxetaraco*
 - ***gueyago*** *eytendot elduteco neure sereguinay*

23 RyS guino; *ynurria guino lagun gura* (81), *lauçatu guino daroa betatu* (210)

- **guichiago** *adituco sinate*
- **deungago** (txarrago)
- *obe / obeago / obago*
 - **obedala** *bacarric egotea lagun deungueagas baño*
 - *balis obago*
 - **obea**
 - **obe da**
 - **ydarayaten dodaⁿ obea da**
- *-(e)n + baxin²⁴ + -ago*
 - *baliodaue baxin gueyago*
- Absolutuak
 - Superlatiboa
 - *gausaric obena falta xaco*
 - *enesat daucan obena da*
 - *aen se + perpausa (atzizkirik gabe)*
 - *aen xateco presta se edosyn ordutan ydoradays guisonac guisadoric*
 - *aen ona se balis obago ez leuque montaco eser*
 - *aen ... (+ seyn ...)*
 - *aen gogorra, seyn diamantesco arria*
 - *aen adisquidea onena, seyn ni naxá*
 - *aen ondo etorri seyn urte onac*
 - *aen goxetic*
 - *-gach + DEST*
 - *megach oss onegasco: meheegi hotz honetarako*
- Denbora perpausak
 - *-an orduan*
 - *beaturic dagoan orduan*
 - *-ean*
 - *dauquanean guisonac criadu asco*
 - Aditza + *artean* (=aurretik, baino lehenago)
 - *urten artean*
- Kausa perpausak
 - *zeren: serren, seren, se + perpausa (atzizkirik gabe)*
 - *seren estosu biortuco*
 - *seren egusquiac esin esanley gusurric*
 - *seren besteoc dira Ytaliaric etorriac*
 - *serren penatan vior equida*
 - *serren da dustis aen gogorra*
 - *serren nic dacust arguiric cerua*

- *serren guradot xaygui*
- *serren daucat gaurr asco sereguin*
- *serren diño*
- *serren esta aytatuco soquea, urcatuen esean*
- *serren eraxasscoa megach da oss-onegasco*
- *serren diño doctoreac*
- *serren da beroago goxetaraco*
- *segayti? serren esandaroe*
- *serren galdugueyñ xateco gurea*
- *serren missa ensunagati ta garragarra esarriarren esta videric galsayten*
- *serren beragas eytendot guradana*
- *serren (...) estaude gausaric eguiten artez*
- *serren ate ysietaric biortuten da diabrua*
- *se esteysu gachic*
- *bay, se enas orren delicadua*
- *se gausa balsa da bacartasuna*
- *se neuc artuco dot neurea*
- *se andra garvienac dira*
- *se edosyn ordutan ydoradays guisonac guisadoric*
- *se piperac piquetan xoc*
- *se balis obago es leuque montaco eser*

○ zergatik: *segayti*

- *segayti enessat oneyc dira egunac beardogusanac esean sartu*

○ *-laco*

- *guradolaco*
- *suc aguinduten dosulaco*
- *gozo derechalaco ardaoac*

➤ Hautakaritza

- *edo suc diñosu gusurra, edo bay erloxuac*
- *suria ala gorria?*

➤ Aditza jokatua + aditz jokatugabea

- *noraco aen goxetic? negocietan* (noa)
- *yndasu xasten*
- *yguc edaten*
- *xarri almorzetan*
- *betor edaten*
- *urgasteco almorzetan*
- *noa sarrtuas*

➤ Baldintza perpausak

- *ydoro asquero oydauela damu*
- *astuten badosu*
- *lar adi basagoças etorric xasu gacha bertati*
- *ori lisate valiz sure meçedeori persona sospechacoa*
- *espadavil ondo*

- *orti badaroa*
- *guichiago adituco sinate basina aen adisquidea onena*
- *balis obago es leuque montaco eser*
- *berac galdu baditus, pagadu daguisala*
- *euria badagui bere*

- Perpaus erlatiboak
 - Aditz jokatua + -(a)n
 - *urian dan pastelera garvienerean*
 - *dana leguez errazoea*
 - *eytendot guradana*
 - *ona ysandinbat*
 - *onac direanic*
 - *aguindu dayana*
 - *daucan obena*
 - *banagoc(o) oni, diñoanari obedala...*
 - *beaturic dagosanac*
 - *ni nax serviduco dodana*
 - *ydarayten doda" obea*

 - Bestelakoak
 - *suurac ebaguiten dau(s)ela*
 - *non dago dustia orraziagas*

- Aurkaritzako juntadura
 - *es espada* (= baizik)
 - *es espada zapatac*
 - *naystot espada barnizadua*
 - *es espada errazoeagas cumpletaco*
 - *baxe*
 - *baya ori esta faltea, sobrea baxe*
 - *estago emen sorçi vaxe*

- Kontzesio perpausak
 - *ta espadira vere es nax ni adituten orrelaco gausetara*

- Harridura perpausak: galdetzailea + -(a)n (edo ez)
 - *u seymba ulle urdin daucada*
 - *se galantic dauko guelau*
 - *se curiosoro dagoá*

- Zehar galderak
 - NZ galderak -(a)n / Ø
 - *ecussu nor dagoan atetan*
 - *esadosu seyn da*
 - *daquidala ser edaten doda*

 - Bai/Ez galderak -(e)n / ba-

- *eguna den ecussu*
 - *ecusteco eser falta den*
 - *adisate badauque calzerdiac puncturic ascaturic*
- Hurrenkera: perpaus hasierako adizkia
 - *Da uren arerio andia*
 - *Bira gure auso ederrenean*
 - Pasiboa: partizipioa *-(r)ik* + EGON *(+ganic?)*
 - *Joane eriduric egon ysanda Peruganic*
 - *Esanic dago*
 - Esapideak: Perpaus nagusia + mendeko perpausa + *-(a)n*
 - *obeda nic diñoda se es urteac*²⁵
 - *ara emen non datorre ycuslea*

LEXIKOA

- *-(ta)sun*-dun izen abstraktuak
 - *bacartasuna*
 - *erasuna / eratasuna*
 - *esauntasuna*: ezagutza
 - *esayntasuna*: itsustasuna
 - *seyñtasuna*: haurtzaroa
 - *aydetasuna*: ahaidetasuna
 - *egiltasuna*: isiltasuna
 - *xaquintasuna*: jakinduria
 - *ossasuna*
 - *ycuscatasun*: zikintasuna
- Adberbioetako *-ro* atzizkia
 - *curiosoro*
 - *deungaro*
 - *deunsuro*
 - *larguro*
- Modu adberbioak *-la(n)*:
 - *selan*
 - *nolan* (*nola* konparaketetan bakarrik)
 - *selango*
 - *edoselan*
 - *orrelan*
 - *orrelaco*
 - *alan*
 - *alangoa*
- Ezeztapena: *es / se*²⁶

25 RyS: *Obe da gorde çe es esque* (320)

26 RyS: *çe eyquec* (36), *çe eguioc* (152), *çe eguic* (162), *çe bez* (166), *çe emac* (189), *ezca çe aquio* (257), *çe bez* (271),

- *sedeguidisula ecarri orrelaco comparaçiñoric*
- *nic guradot edan vidriosco copa onetati se veste taza gustietati*
- *sebegui ori esan*

- *berri(z) sufri ezazu / ostera (berriro)*

- *ara emen > amen (bizk.mod)*

- *mandaco: -ko txikigarria*

- *-tzuk pluralgilea*
 - *basuc: batzuk*
 - *seynsuc: zeintzuk*
 - *bisuc: bitzuk*